

Karkara

karkara.eus

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2018ko azaroaren 30a · 400.zenbakia



Hemen da EUSKARALDIA!

Richard 'belarriprest' eta Nadeth 'ahobizi'; egunotan, 1450 oriotar ari dira eguneroko hizkuntza-ohiturak aldatzeko saiakera egiten.

ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatutak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Ander Zinkunagi
667 740 279

Villar Autobusak
 Bidai nazionalak eta nazioartekoak
 83 eserleku



Autocares Villar
 Orío [Gipuzkoa]
 Tel: 609402537
 Email: autocaresvillar@yahoo.es
www.autocaresvillar.com

garay manufacture

SUKALDEAK

www.garay.eus
1985tik sukalde altzarietan lanean

HITZORDUA ESKATU ETA
 LANTEGIRA HURBILDU
 Olabidea aldea 1
 (Errotaberri Industrialdea)
 20.800 Zarautz

943 13 31 09

urbide
 iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
 20800 | Zarautz
 943 890 069
 urbideiturginak@gmail.com
 www.urbide.es

HEBETEGIA
PATXI OLIDEN
 HEBETEGIA

Hemengo haragia.
 Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
 txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Sagasti LEIHOAK

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 33 71 30
 sagasti@sagastileihoak.com
 Auzoakale Kalea, 63
 20810 Orreaga

Kalitatezko materialak
 PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
 Salmenta osteko zerbitzua **www.sagastileihoak.com**

Joseba
 AROZTEGIA • CARPINTERIA

ATEAK
 ZOKALOAK
 ARMAIRUAK NEURRIRA
 LEIHOAK
 ESKAILERAK
 AROZTEGIA OROKORREAN

687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

Karkara^{30 urte}
karkara

Egin ditzagun

31 ESKUTIK!

EGIN ZITEZ LAGUNTZAILE

Tel: 943 831 527
 E-posta: karkara@karkara.com
 688 857 305

IZARRA ELEKTROGAILUAK 12 HILABETE-INTERESA%0

PHILIPS - BRAUN
 PANASONIC s.a.
%15ko deskontua

%20ko eta %30ko deskontua
 BOSCH - BALAY - SIEMENS - AEG
 ZANUSSI - ELECTROLUX - LIEBHERR - MIELE s.a.

%20ko deskontua arte

TIEN 21

Enda pasa
 pasa zabe

Garip Gudari, 11
 Tel. 943 83 38 11
 20800 Orreaga (Gipuzkoa)

400

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.eus

Editorea

Karkara taldea
kultur elkartea

Erredaktore burua
Ainara Lasa

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Olatz Artola
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Miriam Garcia
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkuadun

Publizitatea

Sonia Albizu

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Zigor Esoain
Iñaki Iturain
Onintza Manterola
Intza Unanue
Jabier Zabaleta

Diseinua

Saioa Perona

Banatzzaileak

Patxi Bravo (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza S.A.L. (Lasarte-Oria)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 4000 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berrieman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Zigor Esoaini jarri dio puntua Andoni Atorrasagastik: Zer egingo zenuke alkate bazina? Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

ZIGOR ESOAIN (DOINUA: GAZTEAK LIZARGATE)

1

Zer egingo zenuke alkate bazina?

Udala mantenduko nun ahal dan garbina, txerifa kargutikan kenduta jakina, argi baitaukat nundik sortzen den zikina.

2

Parte hartze kontutan bada gabezia, ta hor jarriko nuke hurrengo hazia, panel digitalekin eman ez bizia, herria informatuz akabo auzia.

3

Beste hutsune latz bat datorkit burura, gaur egun gazteekin falta da lotura, ta hor udaletxeak badauka ardura, elkarlanak bihurtu behar du ohitura.



Azken legealdiko ohiko bilkura bat, Orioko Udalean. KARKARA

Hurrengo bertsolaria:

Joseba Oliden

Puntua:

Bertsotan omen zinen herriko promesa

Euskara eta etorkizuna

Duela 50-60 urte bi gertakizun garantzitsu eman ziren:

1. Euskararen etorkizuna ziurtatu nahi bada, euskarak eskola irabazi behar du (erronka).

2. Euskara Batuaren aldeko erabakia Arantzazuko kongresuan (Euskaltzaindia).

Lehenengo duela 60 urte utopiatzat har zitekeen, orduan zegoen egoera kontutan izanda: ez irakaslerik, ez testugintzarik eta euskara ia harremanetarako hizkuntza bakarrik zenean. Baina, ondorenean etorritako Ikastolen mugimendurekin, euskarak eskola eremuan bere lekua hartu zuen eta gainera, horri Arantzazun hartutako erabakia gehitzen badiogu, gaur egun irakasten eta ikasten den euskal hezkuntza, gaztelaniazkoaren parekoa edo hobeagoa dela esan dezakegu.

Baina horrekin bakarrik euskarak ez du bere etorkizuna ziurtatua. Hori lortu ahal izateko bide bakarra dagoela esango nuke: euskara erabiltzearen beharra sortzea. Azken finean, Euskal Herria eleanitza da eta izango da (gure ondorengoek, 3 edo 4 hizkuntza ezberdin menperatzea espero da). Eleaniztasun horretan, euskarak bere lekua eduki behar du. Hau da, gure testuinguruan bizi den edonork, euskara erabiltzen jakin behar du derrigorrez; edo gutxienez, euskara erabiltzeko gogoia duela erakutsi eta hori lortzeko intentzioz lanean jardun.

Horrek ere, hasierako euskarak hezkuntzan parte izatearen moduan, utopia bat dirudi eta gainera, orain dela 50-60 urte genuen utopiak baina zailagoa. Baina historian argi ikusi dugun moduan, utopiak egia bihurtzeko gaitasuna daukagu euskal gizartean eta oraingoan ere berdina lor daitekeelakoan nago.

Jakina da gure gizarteko haur eta gazteen ehuneko handi batek euskaraz badakiela; eta badakigu, gainera, gazteak bere barnean izaten duela borrokarako grina. Hori horrela

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-rekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

izanda, gazteek behar dute izan utopia egia bihurtzen saiatzen aurrenak. Baina, nola? Galdera etorriko zaizue gehienoi burura... nire ustez, erantzuna erraza da: gazte orok, edonon eta beti, euskara erabiltzeko ideia presente edukitzea.

Gure arbasoek hainbeste urtetan lortutako egoera, ez dezagun atzera bota orain eta Euskaraldia, izan dabila 11 eguneko beharrea, betirako: Egin dezagun euskara beharrezko Euskal Herrian.

• **Antonio Campos.**

Txurumuskik 20 urte!

Herritar agurgarriak:

Zuengana zuzentzen gara gutun honekin, gure hogeigarren urteurrena ospatzen gabiltzala eta horren harira izango diren aldaketak jakinarazteko xedearekin.

Dakizuenez, Txurumuski elkar-tea herriko haur eta gazteei zuzenduriko astialdiko ekimenak sortu eta sustatzeaz arduratzen den irabazi asmorik gabeko taldea da. 1998. urtean jaio ginen, astialdian geratutako hutsunea betetzeko asmoz, eta urte hauek guztietan aurrerapen ugari egiten saiatu gara, gure esentzia galdu gabe.

2008tik, Orioko gazteentzat eraikitako Ametsa Gaztelekuaren

kudeaketa gure gain dago eta bertan, beraientzat giro atsegin bat sortzeaz gain, ekintza eta irteera ezberdinak antolatzen ditugu zazpi urte beranduago.

Ondoren, herriko txikienentzat Ludoteka sortu eta arratsalde zozagarriak igarotzen ditugu bertan, txikienekin.

Horrez gain, hainbat ekintza burutzen ditugu urtean zehar, hiru taldeetan bana daitezkeenak. Alde batetik, hilero-hilero ekintza bat antolatzen dugu, jolas ezberdinak burutzen dira bertan, bi ikastetxeetako haurrak elkartuz. Bigarrenik, begirale eta gazteen arteko konbibilitateak izaten ditugu urtean behin. Eta hiru garrenik, udalekuak ditugu: uztaileko Udaleku Irekiak eta Uda Txokoa, eta abuztuko Gazte Abenturak.

20 urte igaro badira ere, eta urteen baitan begirale batzuk joan eta berriak hasi bagara ere, hasierako helburu berberen alde lan egiten jarraitzen dugu: euskararen erabilera, euskara eta euskal kultura sustatzea, ezintasun fisiko eta psikikoak dituzten haur-gazteen gizarteratzea sustatzea, kultur aisialdi-jarduerak suspertu, bideratu eta gauzatzea, parte hartzea bultzatzea, ikastetxe desberdinetako haurren elkargunea izatea eta, batez ere, ondo pasatzea.

Aurten, beraz, bi hamarkada pasa direla ospatzeko aldaketatxo bat egin dugu gaztetxoek gehien disfrutatzen duten ekintzarekin. Urtero burutzen ditugun konbibilitatean, azken urteetan, Hondarribiko aterpetxean elkartu gara. Orain dela urte dezente, ordea, (egungo begiraleak haurrak ginela) Txurruka aterpetxean pasatzen genituen hiru egun polit hauek. Horregatik, urteetan atzera eginaz eta omenaldi modura, berriz ere Txurrukan elkartuko gara begirale zein gaztetxoak martxoaren 22, 23 eta 24ean.

Urtean zehar, beste hainbat ekintza ere burutuko ditugu urte zozagarri horiek ospatzen jarraitzeko, joango gara jakinarazten datak au-



rrera joan ahala.

Besterik gabe, mila esker Txurru-muskiko kide guztion partetik. Zuei esker iritsi baikara hogeitun urte hauek ospatzera. Jarrai dezagun, beraz, ilusioz eta gogotsu herriko gaztetxoentzat ekintzak sortzen, elkarlana sustatzen eta batez ere ondo pasatzen!

Adeitasunez, agur bero bat.

• **Txurrumuski Kultur Astialdi Gazte Elkar-tea.**

Tristuraz eta ulertu ezinik!

Hilabete batzuren atzerapenarekin izan bada ere, oriotar guztiontzat berri pozgarria izan da, azaroaren 20an Eusko Jaurlaritzak eta Orioko Udalak portuko lanak egiteko akordioa sinatu izana.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburu Arantxa Tapiak eta Portu eta Itsas gaietako zuzendari Aitor Etxeberriak sinatu aurretik emandako azalpenetan, itsasontziak portu eremuan egiten

Akatsak zuzentzen

Karkararen 399. zenbakian, akats bat egin genuen. Aloña Iribarren 'Arantzazutik Arantzura' iritzi artikulua sarrera testuan, 'ehun urteurrena' idatzi genuen, ehungarren urteurrena ipini orde.

dituzten aktibitateak bermatuta egongo direla esateaz gain, arrantza sektorea babestu beharreko sektore estrategiko bat dela azpimarratu zuten. Gure aldetik bat egiten dugu guzti honekin.

Sinadurako ekitaldi horretan faltan bota genituen Kofradiako ordezkariak, eta ondoren jakin dugunez ez zuten Udalaren aldetik gonbidapenik jaso. Ez dugu ulertzen zergatia; beraien lan eremua izanik tokatzen zitzairen bertan egotea, begirune hori merezi zuten. Elkarlana aho-betez

entzuten ohituak gauden honetan, triste da jarrera hauek jasan behar izana.

• **Orioko EH Bildu**

Salatxo abesbatzaren eskertza

Urtebetetze ospakizun ederra izan zen larunbatekoa.

Opari itzela egin zeniguten bertan egon zineten guztiok, kiroldegiko harmailak goraino betez.

Abesbatzako kideok ez dugu ahaztuko han bizi izandakoa. Kontzertuan parte hartu zenuten guztioi ere, gure eskerrik beroena; lan bikaina egin zenuten! Kantuz nahi bizi...

Mila esker, Orio!

• **Salatxo abesbatza**

EZKONDUTAKOAK

- Luis Brazo Dominguez eta Beinat Herce Leceta, urriaren 27an.
- Iñaki Ibarbia Echeverria eta Mikel Fernandez Aguirre, urriaren 27an.
- Ianire Lazcano Esteban eta Iñigo Ubarrechena Ansa, urriaren 27an.
- Leire Zubizarreta Peña eta Jon Etxeberria Bengoetxea, urriaren 20ean.
- Iñigo Sanchez Rabina eta Amaia Estevez Iradiez, azaroaren 2an.

HILDAKOAK

- Jose Miguel Beldarrain Idarreta, Aian, urriaren 31n. 93 urte.
- Xanti Loidi Iruetagoiena, Orion, azaroaren 4an. 78 urte.
- Antonio Solaberrieta Tolosa, Orion, azaroaren 7an. 73 urte.
- Inazio Lizarralde Ayerbe, Aian, azaroaren 20an. 80 urte.
- Guillermo Iradi Tolosa, Orion, azaroaren 25ean. 76 urte.

JAIOTAKOAK

- Aimar Agirre Zufiria, irailaren 28an.
- Joanes Etxezarreta Yeregui, urriaren 11n.
- Alaia Valderrama Martin, urriaren 12an.
- Amets Unanue Ortega, urriaren 15ean.
- Mikel Josue Olivas Lopez, urriaren 22an.
- Nora Arruti El Oual, azaroaren 2an.
- Lia Blanco Tolaretxipi, azaroaren 4an.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27





Orioko Euskaraldiko lantaldea. EUSKARALDIA

400.aldia

“Kalkulu kaxkar bat eginda, 1.000.000 aletik gora banatu ditugu Orioko eta Aiako etxeetan.”



Arraunlariek denboraldi honetan uretan egindako lehen saioa. ORIO AE

Loraldia, denboraldia, ekaraldia, oporraldia... Zerbaiten garaia dela badakigu aldia entzuten dugun bakoitzean. Euskaraldiarekin ere berehala entenditu genuen euskaraz jarduteko sasoia zetorrela. Aldiak, aldi berean, sasoi bat bukatu eta beste bat hasteko garaia markatzen du, eta horretarako prest agertu dira oriotar eta aiar ugari. Ikusi besterik ez dago, esate baterako, oriotarren 36-45 urteko artean herritarren %40ak eman duela izena. Ikaragarria da hori, ariketa honen bidez ohiturak aldatzeko pronto agertu dira joeraz erdarara gehien jo duten adin inguru-koak.

Gure aldetik, Udalarekin batera bultzatzaile izan garen aldetik, oso-oso pozik gaude. Ikusi beharko da zer emaitza erreal ematen dituen esperimendu honek, baina aldi berri bat ekarriko duenaren esperantzaz gaude. Jolasparkeek beste doinu bat izango dutenaren esperantzaz.

Gizonezkoen arraun trainerura ere, aldi berria datorrela dirudi. Baja dezente izan dira, tartean, azken hamar bat urtetan, txarreanean eta onenean, tostartean egon den etxeko belaunaldi bat. Eta emakumezkoetan? Garaipenen aldia etorriko ote da? Ikusteko dago.

Salatzok eta Txurumuskik ere aldi eder bat osatu dute, 25 urte bata eta 20 urte besteak. Ospatu dezatela merezi duten bezala, bejondeiela!

Eta KARKARARI buruz zer esan? 400 zenbaki osatu ditugula! Hileroko bileran, nahigabe bezala, aitatu zuen kideren batek, inozente-inozente. Kalkulu kaxkar bat eginda, 1.000.000 aletik gora banatu ditugu Orioko eta Aiako etxeetan. Bada zerbait, ala? Ba, ospakizunak datorren urterako laga, 30 urte beteko ditugu ekainean, eta aldi berri bat prestatzen ari gara. Aldaketa aldia dator KARKARARA ere!



Salatxo abesbatzaren 25.urteurreneko kontzertua. KARKARA

KARKARIÑOAK



Nola bizi duzu Euskaraldia Aian?



“Euskaraz ikasteko gogotsu nago orain”

Orain dela bi urte etorri nintzen Aiara bizitzera. Lehen Irunen bizi nintzen. Jatorriz argentinarra naiz eta euskarak beti liluratu nau.

Irunetik hona izugarritzko aldea nabaritu dut. Han ez nuen euskaraz apenas entzuten. Egia esan, azken urte honetan euskara ikasteko grina piztu zait. Nire bilobek hitz egiten dute, eta esaten dutena ulertzen dut, baina nirenek ere euskaraz nahi dut komunikatu.

Aiako herritarrak oso adeitsuak eta pazientzia handikoak dira nirekin. Euskaraldian belarriprest moduan nabil, eta asko ari naiz ikasten.

Patricia Parra



“Udalean euskaraz bizi gara urte guztian zehar”

Nire ustez ariketa kolektibo hau oso onuragarria da dezentzat. Administrazioari ere ondo dator kio Euskaraldia bezalako dinamika bat.

Askotan erakunde publikoetako testuak teknikoegiak dira, hitzez hitzeko itzulpenak erabili ohi dira zenbaitetan... Hori guztia euskara ulergarri batera moldatu behar da.

Aiako Udalean orain dela zenbait urte erabaki genuen gure komunikazio euskarri guztiak euskara hutsean idaztea, eta horrek asko lagundu du hizkuntzaren normalizazioan, bai herrian, baita udaletxean ere. Bideonean goaz.

Itziar Azpiroz



“Aian bizitzeko ezinbestekoa da euskara ulertzea”

Egia esan ez dut izena eman Euskaraldian. Ni baserrian bizi naiz eta ez naiz erdigunera asko joaten.

Dena den, ekimen interesgarria iruditzen zait, euskaraz dakitenek egunero hitz egiteko, eta ikasten ari diren pertsonen gure hizkuntza praktikatu eta egunetik egunera gehiago ikas dezaten.

Aian bizitzeko ezinbestekoa da euskara ulertzea. Beti izan da oso herri euskalduna, eta hona etortzen denak hori kontutan hartzen du. Ikasteko prestutasuna ikusten dut kanpotik datorren jendearen aldetik, eta hori oso positiboa da.

Jose Ignazio Arrojeria



Bejondeizuela, KARKARA



Eli Huegun

Ana Gonzalez de Txabarrik eman zidan kolaborazioak egiten hasteko aukera, 18 urte nituela. 400 zenbaki, hiru hamarkada. Zorionak KARKARA posible egin duzuen guztioi!

Gure adin bueltakook ez dugu KARKARARIK gabeko mundurik ezagutu. Beti egon da hor, izan bi asteen behin, izan hilerok. Guk ez genuen jaiotzen ikusi, baina berak gu bai. Horrek badu xarma berezia.

KARKARAK bidea gurekin egin duen bezala, guk ere berarekin egin dugu. Ikusi dugu atalak aldatzen, azaleko estiloak, frekuentzia, langileak, kolaboratzaileak...

Gogoan ditut txikitako hainbat bizipen. Herritarrei egiten zitzairen galdera gogoratzen dut, eta nola nire inguruko pertsonak ateratzen zirenean oso harro sentitzen nintzen. Elkarrizketa luzeren bat egiten zioten pertsonak *zelebritiak* ziren niretzat, Goenkalen herriko kaleetan paseatzen grabatzen zituzten pertsonen maila berean.

Ezin ahaztu, internetek honelako zalantzak argitzen dizkigun garaien aurretik, Orio eta Aiako saltokietako telefono zenbakiak errazten egindako lana. Telefono gida partikularra. Apustu egingo nuke makina bat direla ile apaindegian zita modu horretara hartu dutenak.

Bi azal gogoratzen ditut bereziki. Bata, Oteiza hil zenekoa, *Zakilaneko* aldapako eskultura kandeletz inguratuta irudikatu zuena. *Oteiza hil da* zioen. Argazki harekin eta

hiru hitz soilekin, ezin zitekeen hobeto azaldu gertaerak suposatzen zuena.

Beste azala, KARKARAK 100. zenbakia atera zueneko da. Ziur nago zuetako askok gogoratuko duzuela. Herriko umeak agertzen ziren eskaileratan eserita, KARKARAREN ale bana eskuetan hartuta. Hemerrotekara joan naiz eta 2001. urtekoa dela ikusi dut. Laster 18 urte. Ai ene! 18 urtek askorako balio izaten dute, eta orduz geroztik KARKARARI beste 300 zenbaki ateratzeko balio izan dio. 400. eraino iritsi gara, alajaina.

Ana Gonzalez de Txabarrik eman zidan kolaborazioak egiten hasteko aukera, hain justu, 18 urte nituela. Bihoaz, bide batez, nire eskerrik beroenak. Aukera eman zidanari bezainbeste eskertzen diet gerora etorri direnei ere, kolaborazioak egiten jarraitu ahal izan dudalako bederatzi urtez. 400 zenbaki, hiru hamarkada. Zorionak posible egin duzuenoi, eta eskerrik asko posible izaten jarrai dezan zuen apurtxoak jartzen duzuenoi. Umetan KARKARAN idatzi ahal izango nuela esan izan balidate, emozioarekin lorik hartu ezinda egongo nintzatekeen. Etxeko kotxe gorria Goenkalen atera zenean baino gehiago.



Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO





Euskaraldia: Aiatik Alemaniara!



Aitor Arregi

Aupa Onetsine! Eta kaixo, oriotar eta aiarrok! Iritsi da Euskaraldia gure herrietara! Hamaika egun, euskaraz bizi-bizi, ahoz aho, ahoz belarri, buruz buru, *feis tu feis* aritze-ko.

Beste ezeren aurretik, nire eskerrik beroenak ariketa sozial honetan belarriprest izango diren gertuko lagun batzuei; aurrez aurre esan badizuet ere, milesker bihotzez Mauri eta Pablo, bejondeizuela!

Polita izango da ariketa soziala, eta zaila, gorabeheratsua eta dibertigarria ere bai. Ni, txoratzen nago, baina dena ez da ezkurra zerriaren askan. Entzun ditut, zenbaiten arrazoitan, txapak eraman behar izate hori ez ote den gehiegixoa, hamaika egun hauek eta gero

“Nire eskerrik beroenak ariketa sozial honetan Belarriprest izango diren gertuko lagun batzuei”

denak berdin jarraituko duela, edo borondate kontua dela euskara erabili nahi izatearena. Ez noa inor epaitzera, edo inori arrazoia ezeztatu edo baieztatzen. Baina gaur, XXI. mendean, euskara normaltasunez erabili ahal izateko txapak jantzi behar baditugu hamaika egunez, egin dezagun gure borondate onenarekin. Uxatu ditzagun gure hizkuntzarekiko zenbaitek dituen mamu, susmo eta kezka. Ikusi dezatela, ikus dezagun zenbat herritarrekin egin dezakegun euskaraz Euskal Herrian, nahiz eta hamaika egunak pasatakoan, oraindik egongo den *y esos por qué corren detrás de la pancarta* galdetuko duenik.

Onetsine, nola jarraitu duzu Euskaraldia Alemaniatik?



Onetsine Arrizabalaga

Naixo Aitor, eta karkarazaleok! Bai, niri ere iritsi zait hamaika egun euskaraz barra-barra egiteko ariketaren berri. Ahal bezain gertutik jarraitzen ari naiz sare sozialetan. Euskaraldiko bideo koloretsuak gustura ikusi ditut, eta zer pentsatua eman didate. Ondo irudikatu dituzte batetik eta bestetik egunero Euskal Herrian jazotzen direnak, eta autokritika egiteko balio izan didate, nire ahoa ez baita azkenaldian euskaraz bizi-bizia. Horregatik, nik eskertuko nuke ba, txapa bularrean hamaika egun hauetan bakarrik ez, aurrerago ere eramatea. Erraztuko lidake momentu batzuetan lasai euskaraz jarraitu ahal izatea, jakinik aurrekoak

“Eskertuko nuke, txapa bularrean hamaika egun hauetan bakarrik ez, aurrerago ere eramatea”

gazteleraz erantzun arren, ulertzen didala.

Itxaropena dut ariketa honen ostean euskararen erabilera normalizatzea. Hizkuntza (kasu honetan euskara) baten erabilera borondate kontua dela diote batzuek, nik ohitura kontua ere badela gehituko nuke.

Adibidez, ingelesez hitz egiten zidan jendeari kostatzen zaio orain lehenengo hitza alemaniarrez zuzentzea, eta nik alemaniarrez erantzutean aldatzen dugu elkarrizketa.

Bukatzeke, zoriondu nahiko nituzke ekimen hau aurrera eramateko lanean jardun direnei. Ni *feis tu feis* ez, baina ahobizi, *behatzbizi* eta *bihotzbizi* nauzue pantailaren bestaldean!

ederrategia
ANTILLA
jatetxea

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

arkaitz taberna
... urio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin
giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

ARISTERRAZU
jatetxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

BODEGAS
Gailur

01007 BILBAO 44 43800
Tel./Fax 943 80 91 58
www.bodegagailur.com
Anabarr Erriaza

ZUDUGARAI



Gelariako Txakolina

Tel. 943 83 03 80
Fax 943 83 59 58
tukolizudugarai@tukolinet.net
www.tukolizudugarai.com

Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA



GELATTO

OGI TABERNA

943 578 176
Herriko enparantza

Izozki naturalak - Opilak



ASADOR XIXARIO

Eusko Galarren Kalea, 2
Tel. 943 830019 - ORIO

libe
dietetika
elikadura aholkularitza



eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrena Arrantzale kaleak]

943 53 64 94 - 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

KOLON TXIKI
suharitegia
jusearen



Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

niko
taberna



Karta - Pintxo tradizionalak
Okindegia

Palota Kalea, 5 - 20810 Orio - Egin erreserba 943 53 61 27

Portu
ERRETEGIA

Sando Erreka Auzoa, 4/6
943 89 24 34
20809 AIA-ORIO

*luzirik laguntza aldetan
pintxo erretik ezinezko mami*

ETXEKO BEREZITASUNAK

ARRAIN ZOPA

PARRILA

BODEGON SARASUA
ERRETEGIA



Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO - Tel.: 943 83 00 05



Horregatik ez, horrez gain



Intza Unanue

Olatz Zugastik 27 urte daramatza kantautore. 35 urte, Lertxundiren musikaria izaten. Ez 'fémína', ez 'florero'.

Artikulu hau idazten hasterako, azken aldian gehien haserretu eta mindu nauten egoeren inguruan ideien bilketa egiten jarri naiz. Gai gehitxo etorri zaizkit burura, baina guztien artean bat izan da behin eta berriz nire garunetik bidaia egin duena.

Iaz, Benito Lertxundirekin Basaurin izan ginen kontzertua eskaintzen. Benito eta bederatzi musikari, guztira. Emanaldi horren inguruan estatuko egunkari batek kronika bat publikatu zuen, urte asko arlo horretan lanean daramatzan kazetari batek idatzia. Behin eta berriz goraipatzen ziren bertan taldeko musikariak. Noski, ez Olatz Zugasti ez ni ez ginen sartzen musikariaren talde horretan, kazetariaren esanetan *las dos fémínas de la alineación* baikara. Bai, taldean, dirudienez, alde batetik musikariak daude, gizonenekoak alegia, eta gero gu gaude, loreontziak agian.

Joan gaitezen datuetara, bada, izan ere nik zortzi urte daramatzat Benito Lertxundiren musikari taldearen parte izaten... Baliteke urte gehiago behar izatea benetako musikari bezala hartu dezadan eta dezaten nire burua. Baina Olatz Zugastik 27 urte daramatza kantautore bakarkako ibilbidean murgildurik. 35 urte, Lertxundiren musikaria izaten. *Ez fémína. Ez florero.*

Ez al zaizue iruditzen badela garaia oholtzara begiratzean musikariak, artistak, bertsolariak... ikustekoa eta ez gizon zein emakumeak? Denok egiten dugu gogor lan helburuetara iristeko. Beraz, baloratu behar bazaigu, egiten dugun horren kalitatearen inguruan izan dadila.

Izaro abeslariaren kontzertu batean bere ahotik entzun nuen esaldi batek dioen moduan, industria honen parte garen emakumezkoek ez gaude hemen bi titi eta alua izateagatik, izan ere: *Ez gara honaino iritsi horri esker, horrez gain iritsi garan.*



Onintza Manterola

Euskaraldia

Joan den ostiralean hasi genuen Euskaraldia eta dagoneko laugarren eta azken luzean sartuta gaude. Zenbait, nekatuta, helmugara iristeko amorratzen egongo dira; beste batzuk, ordea, penatuta, bideaz gozaten ari direlako. Txanponaren bi aldeak.

Oraindik balorazioak egiteko garaia iritsi ez bada ere, egun hauetan bizitakoak ekarri nahi ditut hona. Hasteko, txapa bat ez da nahikoa niretzat. Nonahi ahaztuta uzten dut eta zailagoa egiten ari zait non utzi dudana gogoratzea, euskaraz lehen hitza egin eta euskarari eustea baino.

Bigarrenik, kalean, ahobizi eta belarriprest ikurren bila nabilela konturatu naiz, ia obsesio bihurtzeraino. Begiak eta belarriak zorrotzu eta burua galderaz bete zait: txapa paparrean al darama? Euskaraz ari al da? Egia esan, sorpresa atseginak bestelakoak baino gehiago izan dira.

Azkenik, eta niri dagokidanez, zenbait jarrera aldatzeko balio izan dit, Oriotik kanpo batez ere. Lantokian, askok gaztelerara jotzeko joera handia dute eta ni ere askotan erori izan naiz. Hirira joandakoan ere, saltokietan erdaraz egin izan dut lehen hitza, euskara ulertuko ez dutelakoan. Euskaraldiak joera horiek aldatzen eta aurreiritziak alboratzen lagundu dit behintzat. Bada zerbait!



“Egur-lana bukatzen ari zelako laga nion Mutiozabalen lan egiteari”

Ramon Carrera

Mutiozabal ontziolako langile ohia

Toki oso hotza zen hau lanerako; oinak, ordea, inon baino goxoago izaten nituen, beti zerrautsetan sartuta egoten zirelako! Ramon Carrerari Mutiozabalen izandako bizipen asko datozkio gogora, errio bazterrean juntatu eta hizketan hasi orduko. Bera izan zen ontziolako azken langileetako bat.

IÑIGO GAITON

Ramon Carrerak (Orio, 1966) egunkari zahar bati ateratako fotokopia ekarri du patrikan elkarrizketara. Orioko *Berriz Gure Naia* baporearen botadurari egiten dio erreferentzia 1989ko albisteak: Garai hartan, hura izan zen Kantabriar kostaldeko arrantzontzi handiena. Baporearen kaskoa Galizian eraiki zuten, hainbat oriotarren laguntzarekin; tartean ziren Ramon eta Patxi, bere aita.

Itxura ederra du baporeak egunkari zaharrean.

Bikaina zen. Armadoreak ontziak hemengoan diseinua izatea nahi zuen, eta Orioko langile batzuk Galizian izan ginen kaskoa egiten laguntzen. Bukatutakoan, San Juan baporeak ekarri zuen lotuta honaino. Aita hil zen urte berean bota zuten uretara estreinakoz.

Erriberako arotz lanetan urte luzez aritu zineten aita eta biok, ezta?

Bai. Niri aitak erakutsi zidan ofizioa. Ikasketetarako ez neukan fundamentu handiegirik, eta Mutiozabalera ekarri ninduen berarekin lanera.

Nire aldean, aita artista izan zen. Ikasketarik gabe, gai zen buruan zeuzkan ideietatik abiatuz ontzien planoak sortzeko. Gure familia Txankakoa da, eta gertutasunagatik-edo, aitak Ortzakako ontziolan ikasi zuen lanbidea. Hogeita bost urterekin egin zuen lehen baporea, 1954an: *Hermanos Manterola*.

Noiz hasi zinen Mutiozabalen lan egiten?

1984.urtean. Ordurako, ia ez zen egurrezko baporerik egiten. Hala ere, garai hartan Orioko moilan 30 arrantzontzi inguru izaten ziren lotuta, gehienak zurezkoak,

eta haietan konponketa lan asko egiten genituen. Lanik ez zitzaigun falta aita eta bioi.

Aita hil eta gero ere, Mutiozabalen segi zenuen lanean.

Bai, baina egur-lana ahitzen ari zenez, Arostegi tailerrekoentzat ere egiten nuen lan. Erriberako arotz lanekin bakarrik, ia ezinezkoa zitzaidan bizitzeko adina diru irabaztea.

Noiz laga zenion ontziolan lan egiteari?

2008an, oker ez banago. Pena eman zidan, baina ez zegoen lanik. *Garestia ateratzen da egurrekin lan egitea!*, esaten zidaten batzuek, beren enkarguentzat aurrekontuak egiten nizkienean.

Balio handia izango zuten gauzak egongo ziren han jasota: planoak, egurrezko moldeak, erreminta zaharrak...

Bai. Badaezpada ere, gureak ziren *plantilla* batzuk handik atera eta gorde egin nituen. Aitak egindako baporeen planoak Soco Romanori eman nizkion, Untzi museoko lehengo zuzendariari, ontziolako hezetasunak hondatu ez zitzaizkan.

Lan egiteari utzi nionerako, ohartuta nengoen Mutiozabalen balioaz. Banekien Gipuzkoako azkenetako ontziola zela; itxi genuenean, itxura txarra hartzen hasi zen, erortzen, eta jendeak ez zion baliorik ematen. Egia esan, moilatik begiratuta haustear zegoen txabola zahar bat zirudien.

Orioko Udalak erosi egin zuen Mutiozabal, eta orain berritzen ari dira. Zein funtzionamendu izan beharko luke etorkizunean?



“Mutiozabal ontziolak zentro bizia izan behar du aurrerantzean, eta itsas ondarea transmititzeko baliatu behar da.”

Ontziolak zentro bizia izan behar duela iruditzen zait. Lehen ontziak nola egiten ziren erakusteko balio dezake; tarteka, botadura baten simulazioen bat egiteko ere bai...

Mutiozabal erriberako arotzaren ofizioa erakusteko baliatu nahi dutela entzun dut, baina ikuspegi profesionaletik, irtenbide gutxi ikusten dizkiot horri. Beste gauza bat da jendeak afizioagatik egurra lantzen eta txalupak konpontzen ikastea. Hori polita da.

(...)

Lehen, Orion ohikoa zen moila aldean mugimendua egotea: ontziola martxan, baporeak hara eta hona, arrantza-leak batetik bestera...

Hori guztia galtzen joan da, eta urte gutxi barru, desagertu egingo dela uste dut. Ontziolaren bidez, datozen jenerazioei garai bateko ofizioen berri eman behar zaie; Orion, itsasoari eta errioiari loturiko bizimodu hori existitu zela erakutsi behar da. Balio handia du horrek.

Itsas ondarearen transmisiorako erabili behar da ontziola, beraz.

Bai. Transmisio horretarako aukera ona galdu zen *Berriz Gure Naia* baporearekin. Arrantza gehiago ez egitea erabaki ostean, ontzia Orioko Udalari eskaini zitzaion debalde, lehorrera atera eta aurrerantzean, jendeak bapore baten barrunbeak ezagutzeko aukera izan zezan. Azkenean, ez zen halakorik lortu, eta zoritxarrez, bota egin behar izan zuten ontzia.



Mada eta osagarriak
grande guisa nabali!



Garbizo Arrezi

Merito plaza, 5 - Orio • 635 706 265

Lizaso dekorazioa



Tf: 943 83 07 84
Faxa: 943 24 87 15

Eusko Gudari, 48




Tf: 943 130 438




ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



EKILORE GARBIKETAK

626417841
ekilore@outlook.es



ELEKTRIZITATEA
Ander Expósito

943 831 774
600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa



15eko dekoetza familia agarten txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889 f argine/jantziak

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Amritz kalea, 1 ■
T 943 34 885
ORIO (Guzkoa)

Zorrotza kalea, 18 ■
(5. Piztasia kolonkiko idria)
T 943 01 134
ZARAUZ (Guzkoa)

Ertza kalea, 10 ■
T 943 41 121
ZURUAGA (Guzkoa)

Foto bibotea, 2 ■
T 943 22 175
Azueta (Guzkoa)

www.kaiioa.es



www.fontaneria-fontana.com

- Komun eta sakaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoak instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujentzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiazalea

fontana iturgintza

Plaza Endala N°1, 20810 - Orio
fontana-ju@hotmail.es
943 539 888 • 661 262 828

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA

zerbitzu teknikoak
24 ordu



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrojeros@yahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK INEKITZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

ITZIAR
kirolak



Tel. 943 83 31 03

Izaskun Estankoa

Takaketa - Prentza - Eskola materiala
Opariak

Astelehendik osteguna
8:00-13:00 - 17:00-20:00
Larunbatetan eta igandetan
8:00 - 13:30

Eusko Gudari, 23-20810 Orio - Tel: 943 831 242

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra



TXUKUN LORAZANTZA, S.L.

Tel. 660 332 756 • 679 428 851

Lorezaintza
Mendiko lanak
Indusketak
Itxiturak

...
txukunlorazantza@hotmail.com




Zaragueta Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



Salatxo abesbatzak 25 urte bete ditu Santa Zezilia egunean

1993.urteko azaroaren 22an sortu zen Salatxo abesbatza. Santa Zezilia eguna ospatzearekin batera egin zuten lehen bilera, eta ordutik, **25 urtetan ez diote kantatzeari utzi.** Ia 400 abestiko errepertorioa da urteotan ondutako uzta, ehundaka bizipen ederrekin batera.

TESTUA: IÑIGO GAITON

ARGAZKIAK: KARKARA, EGIUREN, SALATXO

Amaia Cucurullek eta Eneko Olariagak 17 eta 18 urte zituzten, hurrenez hurren, Salatxo abesbatza sortzeko lehen bilera egin zenean. Garai hartan, Xabier Lizaso zen Orioko musika eskolako zuzendaria, eta korua sortzeko inizatiba harena izan zitekeela diote biek, oso seguru ez dauden arren. *Kontua da, lehen bilera hartan jende dezente juntatu ginela, tartean gazte asko, eta ilusio handia antzeman zitekeen, zehaztu du Enekok.*

Orio herri kantaria dela esan izan da betidanik, eta herrian koro batek ondo funtziona zezakeela ikusi zuten. Marina Lertxundi zarautzitarra izan zen Salatxoko lehen zuzendaria: *Abesbatza sortu genuenean, jende askok ez zekien partiturak irakurtzen, belarriz ikasten zituzten abestiak. Marinak lan ikaragarria egin zuen jendeak solfeo maila minimo bat izan zezan. Oinarri oso ona eman zigun, gogoratu du Amaiak, Lertxundiren lanak gerora bere fruituak eman dituela azpimarratuz.*

"Parranda ederrak ere bai!"

Korua hasierako garaia dagoeneko urruti xamar geratu diren arren, Enekok eta Amaiak ondo gogoratzen dituzte kontzertuen ostean egiten zituzten parrandak. *Gazte dezente juntatu ginen koruan lehen urtetan. Gu baino gazteago batzuk ere baziren, pentsa. Kontzertuetatik itzultzean, herriko tabernak itxi arte luzatzen genuen parranda, inoiz egunsentia kantari argitzeraino, gogoratu du barrez Enekok. Ordu txikietan, partiturarik gabe ederki moldatzen zirela dio.*

Marina Lertxundik *Salatxo txiki* korua ere zuzentzen zuen urte haietan, eta hura zen beren harrobia: *Orain ez dugu halakorik, penatu da Amaia. Orain Eneko eta biok gara gazteenak, eta 40 urtetik gora ditugu. Ez dugu gazteak erakartzen asmatu azken urtetan, eta zaila ikusten dugu erreleboa.* Enekoren iritziz, bizitzeko erak asko aldatu dira, eta garai moderno hauetan, kirolak, adibidez, jende gehiago erakartzen du: *Lehen, herrian, gazte gehienak bateratsuago ibiltzen ginen, aisialdirako eskaintza murriztagoa zelako. Gaur egun, aukera ezberdin gehiago daude, eta ohiturak aldatu egin dira.*

Kantatzea gozamen

*Partitura bat eskuetan hartu, irakurtzen hasi eta kantatzeak, harrapatu egiten zaitu. Niretzat, gozamina da korua, hutsune handia sentituko nuke lagako banu, aitortu du Amaiak. Koruko partaideen erdiak-edo, sorreratik daude bertan, eta Amaia da horietako bat. Enekoren kasuan, kantatzeari utzi behar izan zion hamar urtez: *Itzulera ederra izan zen, sentsazio bereziak izan nituen lehen momentutik. Koruak asko ematen digu kantarioi. Denok eguneroko gorpil zoroan sartuta bizi gara, eta entseguetan, denbora eskaintzen diot nire buruari. Gainera, sozializatzeko aukera bikaina eskaintzen dit abesbatzak,**



"Partitura bat eskuetan hartu, irakurtzen hasi eta kantatzeak, harrapatu egiten zaitu."

A. Cucurull

"Urte hauetan guztietan, hiru zuzendari izan ditugu: Marina Lertxundi, Idoia Azurmendi eta Igor Arroyo."

E. Olariaga



jendearekin musika bezalako tresna gozagarri baten bidez konektatzen dudalako, dio Enekok.

Bidaia eta kontzertuak

Salatxok ia 400 kantuko errepertorioa ondu du ibilbidean zehar. Abesti horiek kontzertu askotan kantatu dituzte, eta emanaldi batzuk, gogoangarriak izan dira: *Marina zuzendari zela, Kursaaen kontzertu ederra eman genuen. 20. urteurrena ospatzeko Orioko Elizan emandakoa ere berezia izan zen guretzat. Hala ere, kontzerturik gogoangarriena koruak aurrena kantatutakoa da niretzat. Jendetza juntatu zen elizan, hunkigarria izan zen, gogoratu du Amaiak.*

Urtez urte, Salatxoko kideek bidaia dezente egin dituzte, inguruko herrietatik hasita Katalunia, Portugal eta Norbega ere bisitatzeraino. Herrialde horietan emandako kontzertu guztiak izan dira desberdinak: *Horretan eragin handia du zuzendari bakoitzaren estiloak. 25 urte hauetan, hiru izan ditugu: Marina Lertxundi, Idoia Azurmendi eta Igor Arroyo, argitu du Enekok. Gaur egun, koruak freskotasun handia duela dio, zuzendaria berrikuntzak sartzen saiatzen delako: *Igorrekin, adibidez, moldagarriak izaten ikasi dugu. Kontzertu klasiko bat eman dezakegu Errenazimenduko abestiekin, eta hortik gutxira, zerbait modernoagoa eskaini, mugituagoa. Horren adibide dira, 25. urteurrenaren harira emandako kontzertuak: *La Jodedera taldearekin Orioko plaza dantzan jarri ge-***

nueu sanpedroetan; Salamancan, berriz, emanaldi klasikoa eskaini genuen goraino bete zen eliza batean.

25.urteurreneko kontzertu berezia Karelán

Herrigintzan era askotan jardun daiteke; Salatxoko ki-deak kantari saiatu dira Orioko kultur eragile ezberdinekin harremanak sendotzen: *Herriko taldeek laguntza eskatu digutenean, beti eman dugu baietza. Edozertan parte hartzeko prest azaldu gara beti, dio Amaiak. Ema-teaz gain, bueltan ere asko jaso izan dutela dio.*

Azaroaren 24an, larunbatarekin, Salatxok kontzertu ederra eman zuen Karelán. Kiroldagiko harmailak herri-tarrez goraino bete ziren emanaldia hasterako, eta kontzertuak iraun zuen ia bi orduetan, emozio une bereziak bizi izan ziren. Abesbatzak kontzertu bizi eskaini zuen, dinamikoa; abesti klasikoak eta modernoagoak dotore uztartu zituzten, hainbat kolaboratzailearen laguntzarekin: Olatz Zugasti, Xabier Lizaso, Asier Gozategi, Harribileko dantzariak, Danbolin musika eskolako ikasleak...

Urteotan egindako lanaren lagin ederra izan zen 25. urteurreneko kontzertua. Salatxoko kideak apaltasunez aritu dira lanean urte hauetan guztietan, eta azaroaren 24an, igurtzi gozoa jaso zuten herritarrengandik; datozen 25 urteetan berdin segi dezatela opa nahi izan zieten, txalo zaparrada bakoitzarekin.



Gerra aurreko festak

Orietarrek 1936ko gerra baino lehen herriko festak nola ospatzen zituzten jakiteko modua izan du KARKARAK, Eusko Ikaskuntzak 1983 eta 1984an hiru oriotarri egindako elkarrizketen bidez. Herriko festen ondare harribitxia, ez bairik gabe.



TESTUA: IÑAKI ITURAIN / ARGAZKIAK: LITURAIN AR-
TXIBOA

Eusko Ikaskuntzako folklore sailak herri-festei buruzko inkesta lan handi bat egin zuen 1983tik 1986ra bitartean. Juan Mari Beltran, Karlos Garaialde eta Pedro Mari Santos gazteek osatutako hirukoteak Gipuzkoako kostaldeko jaiei buruzko inkesta egin zuten, Oriotik Mutrikura bitartean. Orioko San Pedro eta San Nikolas festen gainean hitz egiteko, hiru oriotarrekin juntatu zen Eusko Ikaskuntza: Jose Mari Solaberrieta Bengoetxea *Lino* (1915ean Orion jaioa); Jesus Garmendia Salaberria (1909an Bilbon jaio eta Oriora ezkondua); eta Ramon Santamaria Arruti (1907an Orion jaioa). Gizon haiek esandakotik hartuak dira ondorengo hitzak.

Sanpedroak hobeak Sanikolasak baino

Jesus Garmendiaren ustetan, *herriko jaiak San Nikolasak izan arren, jai hobeak San Pedroak ziren. San Nikolas bigarrenean jende gutxi izaten zen, herriko jendea bakarrik. Egun horretan konfesioak izaten ziren, Ama Birjiñaren bezpera zelako. Egun hartan meza eta prozesioa izaten zen, eta arratsaldean bezperak. Gero, soinua.*

Festa egunetan, jendeak jai izaten zuen hiru egunetan. San Pedrotan arrantzaleak ez ziren itsasoratzen festak bukatu arte. Inguruko herrietatik ere etortzen zen jendea, gehien bat Zarauztik, Agiñatik, Zumaiatik...

Orion jaio ez arren, Frantzisko Balerdi Lizaso *Praixkuren* gurasoak oriotarrak izanik, *Praixku* ere elkarrizketatu zuten. San Pedro festak zenbat egunetan luzatzen ziren galdetuta, horrela esan zuen: *Behin Lorentxoneko mutilzaharrari cacereño batek zera esan zion: tres días de fiesta y vas a trabajar? En mi pueblo quince días hacemos, matar una cabra y quince días de fiesta'. Eta berak: matar una cabra y quince días de fiesta, aquí una cena hacemos...*

Meza nagusia eta prozesioa

Solaberrietak 1983ko solasaldi horretan gogora ekartzen du goizaldean egiten zela *diana, txistulariekin edo Lizarrako dultzaineroekin, kalez kale. Egunean zehar askotan jotzen zituzten elizako kanpaiak, isildu gabe, denbora luzean. Elizako kanpaiak handiak ziren eta, esaten zutenez, Oartzunetik entzuten ziren.*

Elizak garrantzi eta indar handia zuen gizarte hartan, eta festetan ere antzematen zen hori. Orduan, meza nagusiaren ondoren, prozesioa izaten zen herriko kaleetan. Prozesioan, aurretik San Nikolasen imajina eramaten zuten, ondoren apaizak. Alkatea txistulariekin eta herriko jendea. Udaletxeakoak denak joaten ziren. Udaletxeo bat aurrez aurre banderarekin joaten zen, herrikoa edo Gipuzkoakoa. Banderaren atzetik gizasemeak bi ilaratan, eta haien erdian San Nikolasen imajina; gero, apaizak eta, atzetik, emakume guztiak: *Hijas de Maria*. Prozesioaren ondoren, apaizak, udalekoek eta musikoek hamaiketakoa

“Orduan prozesioa egiten zen. Aurretik San Nikolasen irudia joan ohi zen, ondoren apaizak; alkatea txistulariekin eta, azkenik, herritarrak.”

“Aurrena neskak ateratzen ziren dantzara. Neskak 'kalabazak' emanaz gero, mutila bazterrean gelditu behar!”





egiten zuten udaletxearen atzeko arkupetan, Udalak ordainduta, 'Agur Jaunak' kantatu ondoren. Solaberrietak musikari ere egiten dio aipamen: *herriko banda sortu zenean, banda izaten zen prozesioan. 'Martxa reala' jotzen zuten eta elizako kanten doinuak.*

Musika eta dantza

Jesus Garmendia Salaberria ere elkarrizketatu zuten Eusko Ikaskuntzakoek 1984an; Garmendiak nabarmentzen du San Nikolas bezperan kalejira izaten zela txistulariekin: *Leunda eta Mariano Gonzalez de Chavarri. Danbor-jolea Dionisio Larrañaga zen. San Inazioren martxa jotzen zuten. Banda egon aurretik, suelto egiten zen dantzan: fandango, jota, dantza librea. San Pedro egunean, meza nagusiaren ondoren, 12:00etan, luistarren dantzariak udaletxeakoekin jaisten ziren herriko plazara, eta han aurrekua dantzatzen zuten, txistularien doinuan, eta dantza txikiak. Ordubeteko saioa egiten zuten, aurrekuan onenak Manuel 'Ollua' eta Patxi Uzkudun ziren. Sokak herriko neskekin osatzen zituzten.*

Arratsaldean plazan musika izaten zen gerra aurreko jaietan, Udalak jarrita. Bostak aldean hasten zen. Hamabi bat lagunez osatutako bandak lau bat pieza jotzen zituen jarraian eta, atsedentxo bat hartu ondoren txistulariak sartzen ziren.

Hiru elkarrizketatuen arabera, *noizean behin trikitia ere izaten zen, kanpotik ekarrita. Musika gau erdira arte izaten zen. Jendea ordu bata aldean erretiratzen zen.*

Ramon Santamaria Arruti hirugarren elkarrizketatuak aitortu zuenez, *sanpedrotan ez zen ibiltzen serenoa. Gai-*

60

oilasko. San Pedro bigarreneko gauean oilasko bila joaten ziren herriko gazteak, txistuak lagunduta. *Gerra aurreko jaietan 60 bat bildu eta denak lotuta eramaten genituen herrira, dio Solaberrietak.*



nerako egunetan, hamaiketan tabernaz taberna ibiltzen zen makilarekin, eta hark jotzen zuenean erretira.

Santamariak ondo gogoan du aurretik neskak irteten zirela dantzara; eurak hasi eta gero mutilak: 'faborez' esan eta neskaren aldetik baiezkoa hartuz gero, dantzan hasten ziren; 'kalabazak' emanez gero, bazterrean gelditu behar.

Txistulariek hasiera baten, sei duro inguru kobratzen zuten. Geroztik gehixeago, hamar duro inguru. Banda egon aurretik, kanpotik ekartzen zuten musika, Hiru Txulo Donostiatik, Zumaiatik, e.a. Gero, banda sortu eta haiek jotzen zuten. Dantzariak janzkera berezia izaten zuten el-karrizketatuen arabera: galtza zuriak eta gerriko gorria. Aurretik ikasten zituzten dantzak, izaten zen baten bat dantzazalea eta harekin ikasten zuten. Esteban Elizondo eta Leunda ziren dantzari trebeenak.

Oilaskoei lepoa moztea

San Pedro bigarreneko gauean oilasko bila joaten ziren gazteak. Solaberrietak aipatzen du baserri gehienetan ematen zutela oilaskoa; behin 60 bat bildu genituen. Goizeko seiak aldean denak biltzen ziren toki baten. Dena lotuta eramaten genuen herrira. Txistulariekin joaten ginen, kantuan. Gero, oilasko jokoa egiten genuen plazan: oilaskoaren lepoa ohol baten zuloan sartu, bi makilen gainean, eta ttuntuna jotzen zuten, eta dantzan joaten ziren. Buelta bat edo bi egin eta gero, ondoan gelditzen zenak ezpatarekin lepoa moztu behar izaten zion. Gero, Ziripot atera eta dantza egin ondoren oilaskoen lepoa moztu egiten genuen. Bukatzeko, bazkaria edo afaria egiten zen oilaskoekin.

AHATEA ZUBITIK ZINTZILIK

Beste jolas bat izaten zen zubitik soka batetik zintzilik ahatea jartzea. Gazteak txalupan joaten ziren, hiruna: bi, arraunean, hirugarrenak harrapatu egin behar izaten zuen ahatea eta lepoa kendu (antzar jokoa esaten zioten). Azken antzar jokoa Solaberrieta eta bere lagunek jokatu zuten: azkena guk jokatu genuen, 1936an, gerra baino pixka bat lehenago. Meza ondoren jendea plazan juntatzen zen eta han izaten ziren bertsolariak edo aizkolaria. Kukaña moilan jartzen zen, eta mareajea zenean egiten zen, hiru egunetan.

Emakumeen estropadak ere egiten ziren, bateletan. Batel bakoitzean hiru emakume eta patroia joaten ziren. Demak ere bai, noizean behin; eta korrikalariak edo ziklistak ere bai. Horrelako festa asko izaten zen. Lokotx apustua ere bai, jarri lokotxak errenkadan eta korrika banaka-banaka hartu eta lepotarrera bota; lau, bost edo sei lagun.

Hiru oriotarrek garai haren oroimina erakusten zuten Eusko Ikaskuntzari eskainitako elkarrizketan: Garai hartako jaiak ongi pasatzeko ziren; gaurko jaiak ordea, maliziaz beterik daude. Gu noizean behin Aiara joaten ginen, prozesioa ikustera, baita Santio eta San Martinetara. Azkenengo herri bazkaria estropalariei eginiko omenaldia izango zen. Orduan jendeak beste giro klase bat zuen, elkartasun gehiago eta errespetua, festa sanoagoa; oraingo jendeak ez du horrelakorik entzun nahi baina.





GUK DAGOENeko EMAN DUGU IZENA

eta zuek?

euskaraldia.eus



Mugitu ezpaina!

Gure hizkuntza-ohiturak aldatzea da **Euskaraldiak azaro bukaera honetan jarri digun erronka**, euskaraz gehiago eta jende gehiagorekin egiteko. Nadeth Agirre eta Richard Diatta horixe egiten ari dira egun hauetan, aldizkariko azalean ikus daitekeen bezala.



TESTUA ETA ARGAZKIAK: EUSKARALDIA ETA KARKARA

Nadethek ahobizi gisa eman du izena Euskaraldian eta, beraz, euskaraz egiten die beti euskara ulertzen duten guztiei. Richard, berriz, ikasten ari da pixkanaka eta gonbita egiten die herritar euskaldunei berari euskaraz egiteko; eta horregatik jantzi du belarriprest txapa.

Mugitu ezpaina eta atera mingaina!

Manolo Escobarren 'Que viva España!' abesti ezagunaren doinuan eman zion hasiera Euskaraldiari Maddalen Arzallus bertsolari lapurtarrak azaroaren 23an. Whatsapp pe whatsapp eta bertxioz bertxio, berehala zabaldu zen kantaren bertsio berria, Euskaraldian ezpainak mugitze-ko gonbita flamenkoa egiten diguna.

Espainiako kanta zaharraren bertsio ikonoklasta horrek bere baitan biltzen ditu Euskaraldiaren ezaugarri nabarmenetako batzuk: *ezpainak mugitzeko* eta, beraz, hizkuntza erabiltzeko deia, alaitasuna, aldarte berritzaile

eta jostalaria, puntu lotsagabe bat eta kohesioa bultzatzeko nahia —*falta dena, betor!*—. Hori guztia da Euskaraldia, egun hauetan Orion ere zeresana sortu duen arnas luzeko ekimena.

1450 oriotarrek eman dute izena

Oriotarrek harrera ezin hobea egin diote Euskaraldiari eta parte-hartzaileen datuak Euskal Herriko onenen artean daude: 1.450 oriotarrek eman dute izena —%80 inguru ahobizi gisa, eta %20 belarriprest gisa—. Horien artean gehiengoa dira emakumeak, Euskal Herri osoan bezala: % 64.

Kontuan hartuta Euskaraldian izena emateko baldintza zela 16 urte beteta izatea, parte hartzeko adinean dauden oriotarren % 30ak eman du izena. Datu harrigarria da eta garbi erakusten du oriotarrok euskaraz bizitzeko gogo handia daukagula.

Euskararen erabilera sustatzeari dagokionez, orain



arte baino ausartago jokatzeko moduan gaudela ondo-
rioztatu daiteke datu horietatik.

Lantalde zabala, antolamendurako

Aurtengo otsailean hasi ziren Orion Euskaraldia antola-
tzeko lanak, Udalak eta Karkara aldizkariak aurkezpen-
ekitaldia deitu zutenean batera Arraunetxen.

Euskaraldiaren berrikuntza nagusietako bat, hain
zuzen ere, hauxe izan da: administrazioaren eta euskal-
gintza antolatuaren artean abiatu dela aurreneko aldiz
horrelako ekimen zabal bat, eta Orion ere horrela eman
zuen lehenengo urratsa otsailaren 3an: Udalak eta Kar-
karak elkar hartuta deitutako aurkezpenarekin. Ekital-
di hartan lepo bete zen Arraunetxeko aretoa eta, beraz,
hasieratik nabarmen geratu zen oriotarrek ez ziotela
hutsik egingo *esperimentu* berritzaile honi.

Geroztik, lantalde zabala osatu da eta lantalde horrek
antolatu ditu urtean zehar herrian egin diren presta-
kuntza-tailerrak, ekitaldiak, entrenamenduak, txapa-
banaketak eta abar. Udalak hartu ditu bere gain gastuak
eta lan boluntarioaren bidez bideratu da ekimena. 15 bat
lagun ibili dira lantaldean, giro onean eta gogoz. Euska-
raren erabilera suspertzeko, izango da gero ere zeregi-
nik, eta Oriok erakutsi du badagoela indarra erronka
berri horiei ere heltzeko.

“Orioko parte hartze datuak
Euskal Herriko onenen artean
daude.”

“Euskaraldia administrazioa-
ren eta euskalgintza antola-
tuaren artean abiatu da; hori
du berrikuntza nagusietako
bat.”

1450

oriotarrek eman dute izena Euskaraldian.

Beste herri askorekin alderatuz, Orion izen-emate handia izan
du Euskaraldiak. Antolatzaileen esanetan, euskararen erabilera
sustatzeko ariketa praktikoak harrera oso ona izan du herrian.



Nadeth Agirre

- Ahobizi -

Nadeth Agirre Orioko hamalaukoaren patroia da. Trainee-ruak zuzen eramaten zailduta dagoen herritarra izanik, ez zion uko egin Euskaraldian parte hartzeko gonbitari. Bere iritziz, hamaika eguneko ariketa praktiko honek lagun dezake eguneroko hizkuntza-ohituretan eragiten, horretarako *izen emateaz gain, herritarrek benetako konpromisoa* erakutsi beharko duten arren.

Nolatan animatu zinen Euskaraldian parte hartzera?

Antolatzaileetako batek egin zidan gonbita: Euskaraldirako Orion hamalaukoa sortzeko asmoa zutela-eta, parte hartzera animatuko al nintzen galdetu zidaten. Baiezkoa eman nien, hasieran ekimenaren nondik norakoak zehazki oso argi ulertu ez arren.

Zein izan zen zure motibazio nagusia?

Nire egunerokotasunean, euskara da gehien erabiltzen dudana hizkuntza; era kontzientean, ingurukoei ere euskaraz eginarazten saiatzen naiz. Arraun taldean, adibidez, badira euskaraz egiten ez dakiten estropalariak, eta haiei hitz solteak ikasteko esaten diet, txalupan ez diedalako gaztelaniaz egingo.

Oriora datorrenak, jakin egin behar du hemengo hizkuntza nagusia zein den. Duela egun batzuk, batetik hogeirako zenbakien *txuleta* txiki bat bidali nien euskaraz ez dakiten bi arraunlariri, ikasten joan daitezten! kar kar

Beraz, Euskaraldian parte hartu baino lehenago ere, saiatzen zinen jendearen hizkuntza-ohituretan eragiten.

Baietz esango nuke.

Eta jendeak erresistentziarik jarri izan al dizu?

Normalean, arraun taldean behintzat, taldekideen jarrera aldekoa izan ohi da, eta ez da arazo handiegirik izaten oinarrizko hitzak ikasterako garaian.

Zure inguru hurbilean, Euskaraldiak mugimendurik eragin al du?

Bai, inguruko jende dezente ari da parte hartzen; agian, rola aukeratzeak sortu du zalantza gehien: belarriprest edo ahobizi. Agian, lehengoaren profila ez da argi geratu.

Euskaraldiak izango al du benetako eraginik?

Izena eman duen orok, kontzientzia minimo bat izango du egun hauetan guztietan; hala ere, ekimenean parte hartze hutsetik edo txapa janztetik harago, Euskaraldia benetan eraginkorra izango bada jendeak benetako konpromisoa hartu duelako izango da; bestela, ez da lortuko benetako aldaketarik.

(...)

Adibidez, dagoeneko aldaketatxo batzuk antzeman ditut egunerokoan. Ludotekan egiten dut lan, eta guraso batzuek, euskaraz jakin arren, gaztelaniaz egiten dute oso maiz. Euskaraldia dela-eta, horien jarrerak aldatzen hasi direla ikusi dut. Nigan ere eman da aldaketa: guraso horiek euskaraz tutik ere ez zutela ulertzen uste nuen, baina oker nengoen; horietako batzuk belarriprest rolean sartu direnez, zerbait badakitela jakin dut, eta orain euskaraz zuzentzen natzaie.





Miguel Miera
- Belarriprest-

Orion bizi den batek igerian egiten ez badaki, itsasoaz edo errioaz gozatzeko aukera paregabea galtzen du. Niri, antzeko zerbait gertatzen zitzaidan euskararekin. Betidanik Orion bizi arren, gaztelania zen nire eguneroko hizkuntza; ez nekien zer galtzen nuen euskaraz hitz egiten jakin gabe, ikasten hasi nintzen arte. Miguel Mierak erantzun hori azpimarratzeko eskatu du, elkarrizketa bukatu orduko. Bera da Euskaraldiko Orioko hamalaukoaren partaideetako bat.

Urte askoren ostean, nolatan erabaki zenuen euskara ikasten hasia?

Duela hiru urte eman nuen urratsa. Euskaltegian izena eman ostean, bi ikasturte egin nituen han. Bigarren urtea gogorra egin zitzaidan, eta azkenean, laga egin nion eskolak hartzeari. Asko kostatu zitzaidan ikasketa metodo batek eskatzen duen martxa hartzea.

Hortik gutxira, Mintzalagun programaren berri eman zidaten, eta probatzea erabaki nuen; orduetik, Ainhoa Zumetarekin egiten ditut praktikak. Metodo honekin, bete-betean asmatu dut. Astero euskaraz izaten dugun hizketaldiak behar nuen *klik*-a egiten lagundu dit. Euskaraz hitz egiteari gustua hartu diot, eta berriz itzuli naiz euskaltegira.

Zer eman dizu euskara ikasteak?

Batetik, lehen harremanik ez nuen oriotar asko ezagutzeko aukera. Ate asko zabaldu dizkit. Bestalde, nire seme-alabek primeran egiten dute euskaraz, eta haiekin

euskaraz egin ahal izatea ere motibazio berezia izan da. Orain errazago laguntzen diet eskolatik bidaltzen dizkieten etxerako lanak egiten!

Eta nola suertatu zitzazuizun Euskaraldiako hamalaukoan parte hartzeko aukera?

Ainhoa berak egin zidan gonbita, Euskaraldiako antolatzaileekin hitz egin ostean. Hasieran uste nuenarekin alderatuz, harrিতa nago ekimenak hartu duen dimentsioarekin.

Euskara ikasteak jendea ezagutzeko aukera eman didala aipatu dut lehen, eta ildo berean, Euskaraldiak ate gehiago zabaldu dizkit; jende berria ezagutzeko aukera izan dut. Euskara ikasten jarraitzeko bultzada emateaz gain, esperientzia onak bizitzeko aukera ematen ari zait ekimena.

Euskaraldiak eragingo al du benetan eguneroko hizkuntza-ohituren aldaketan?

Beno, ez dakit. Esan dezakedana da, eskolako gurasoen artean antzeman dudala aldaketa nabarmen bat. Euskararen aldeko hautua errazago egiten dute batzuek orain, ari dira gauzak aldatzen pixkanaka.

Zer esango zenieke euskara ikasten hasia pentsatzen ari direnei?

Igeri ikasten ari denak ura tragatzeko beldurra izaten du; euskararekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Jendeari beldurra galtzeko esango nioke, lotsak alboratu eta urratsa emateko. Ahaleginak merezi du!



GARMENDIA
 HIRIEN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibal Ondo, 1
 Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
 informacion@garmendiagestion.com



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
 ABESLARI KALEA, 8
 TEL: 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38
 orio@ikastola.net
 www.oriokoikastola.net



Katu Moria
 OIBOITZARITZA BIRRIKO

ESTROPALARI, 10
 20810 ORIO
 tel. 943 11 66 99

Larrialdia
 688 89 11 29

www.katumoria.com

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 53 59 00

MENDIZABAL AROZTEGIA
Naurriko armariek eta eperlanak

943 831 175 Altxeri bidea
 645 708 491 Betti-Aiol etxea
 mendizarozgi.net 20810 Aia-Orio



Imanol Illarramendi
 Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
 arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com ☎ 665 70 33 47

Desatascos LASTER

688 886 536
 desatascos@desatascoslaster.com
 www.desatascoslaster.com

24 ordu

Hodi-libraketa
 Garbiketak presio handiko urarekin
 Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa
 Hodien, isurbideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin
 Uholde urak ateratzea
 Eskutako kutxatzen detekzioa

Sagar eremua 21-A • 20590 Sanaluze
 Abaramendi bidea 3 • 20810 Orio
 Tel.: 943 751 431



Maider Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
 Arrantzale 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa
 Tel. 943 575 361

oinarri
 PODOLOGIA ZENTROA

Ile apaindegia
MARIJO

Nezka eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgia
Artrosia
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,
 bentosak, akupuntura,
 eskuzko terapia,
 osteopatia

943 13 35 37
 Arizaga kalea, 11 behea

PERTSIANAK
 A K O M A Z

Aluminio, PVC
 Venezianak
 Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

URANGA
 burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
 Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

azkue
 karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
 20809 Aia-Orio
 Tf/fax: 943 83 51 86
 carroceriasazkue@hotmail.com



Garai horretako arraunlari guztiak ziren ahobizi.

Oroimenaren kutxa

Hamalauko historikoa

Non sortu zen euskara? Hori galdetu ohi du askok. Baina galdera nagusia da nola iraun duen bizirik gaur arte. Horren erantzuna zor diogu munduari, gai horretan dugun jakinduria. Gaur arte irauteko, orain baino lehen ere batzuk saiatu ziren gogotik.

Euskaraldiak hamaikakoak eratu ditu herriz herri. Orion, trainerua ikur hartuta, hamalaukoa osatu da, euskara erabil konpromisoa hartu duten herritarrek osatua.

1) Manuel Olaizola jarriko nuke patroiz. Traineruan patroiak asko du sinbolikotik. Olaizola da gure aurreneko patroia handia, lehenengo bandera ekarri ziguna. *Ciaboga* aldizkarirako elkarrizketa egin zioten behin. *Ciaboga* erdara hutsezkoa zen, baina kazetariak euskaraz egin zion; Olaizola ez omen zelako gauza erdaraz egiteko. Behar bada ez zen horrela, agian bere hizkuntzan egin nahi zuen, besterik gabe. Lehenengo ahobizia.

2) Jorge Oteiza, hankeko, atzera begira beti aurrera. Berak ez, baina haren apostoluek euskaraz egiten zuten. Oteizak eman zion izena *Ez dok amairu* taldeari, Jorgek astindu eta esnatu zuen lozorroan zegoen euskal kultura. Lehenengo belarripresta.

3) Jose Lertxundi, XIX. mendean Marokora joan eta arabiera eta berbereen hizkuntza ikasi eta haien gramatika idatzita, tokian tokiko kulturaren garrantzia erakutsi zigun frantsizkotarra.

4) Santos Orbegozo, 1901-05-14an barraren aurrean balea nola harrapatu zuten bertsoan azaldu zigun bertsolari-kazetaria.

5) Maria Camino, 'Maria Maistra', bertso txiki bat bota nahi nuke, nongoa naizen esanaz, amak esan dit oriyotarra bihotz-bihotzez jaiotzaz, hemen hazi naiz alai ta mardul beti euskeraz eginaz, horregatikan bizi guztian mintzatu nahi det euskeraz. Bertso hori erakusten zien herriko haurrei. Horrekin dena esana dago, erabilerak motibazioa behar baitu.

6) Josepa Treku eta Gregori Lertxundi, emakume zirelako bertsozaletik bertsolariarako urratsa eman ezin zu-

ten emakume gartsuak, bere garaiko kantu eta bertsoen lekukotza eman zigutenak.

7) Fabian Loidi, herriko arrantzaleen eta arraunlarien kontraerak olerki ederretan azaldu zizkigun apaiz poeta.

8) Manuel Lasarte, ahozko hitzaren dotorezia zuena.

9) Joakin Arostegi, sermoietan eta liburuetan euskara jantzia erakutsi zuen apaiza.

10) Errikotxia, Gaztelu, Txanka, Saikola, Itxaspe..., herriko eguneroko bizimoduan bertsoa txertatu zuten bertsolariak, bertsoen bidez festa jartzen jakin zuten gizon alaiak.

11) Karmele Esnal. Lehenengo ikastolak sortu ziren garaiko irakasle aitzindaria.

12) Sotero Plazaola, Orioko ikastolaren sorreran hainbat herritarrekin batera lan egin zuen apaiza.

13) Jose Mari Sarasua, Aretxabaletako etxean emazte Mertxe Maritxalarrekin batera, euskal kulturari oso ekarpen handia —ahoz eta idatziz, prosan eta bertsoetan— egin dion familia euskaltzalea sortu zuena; eta lanean eta gizartean ere euskaraz modu koherente eta eraginkorrean bizi izan zena. Lapurdiko Itsasun zendu berria den Aitor bertsolari fina horren erakusgarri.

14) Bukatzeko, Altxerriko kobazuloan babestu zen gizakiaren garaira joko dugu, eta gogora ekarri gure toponimia ederra asmatu zuten ederzaleak: Kukuarri, Talai Mendi, Mendibeltz, Anarri, Oribarzar... Eta belaunaldi belaunaldi euskaraz bizitzeko hautu kontziente eta koherentea egin duten herritarrak: baserritar, arrantzale, etxeoandre

Anjel Lertxundik Berria egunkarian gogoeta hau egin zuten: *Etikak duintzen ditu gizakia eta gizartea, bai antzinako munduan bai gaurkoan; eta etikak dio gure gurasoek eta aitona-amonek eman diguten hizkuntzari eustea sakratua behar duela izan.*

Horretan lagundu ziguten hamalauko historikokoek. Haiek izan ziren euskara gureganaino ekartzen ezinbesteko kate-begiak. Oraingo Euskaraldiak ere horretarako balioko digulakoan.



Ortzaikarrak, Oilasko biltzean

Berrogei urte pasa dira goiko argazkiaz geroztik. 1978. urteko azaroaren 12an atera zuen Ortzaikako gazte koadrilak irudi hori. *Baserriz baserri joan ohi ginen oilaskoak biltzen. Ohitura hori mantendu arren, ez da lehengokoa. Neskek, gaur egun, normal parte hartu dezakete oilasko bilketan. Gure garaian ordea, zehazki, irudi hau atera genuenean –1978– emakumeak lehendabizikoz irten ginen oilaskoak biltzera, mutilekin batera, dio Koro Etxeberriak, Ortzaikako auzokideak. Koadrila goizeko seietan elkartu eta arratsaldeko bostak arte geratu gabe jarduten ginen oilaskoa biltzen.*

Sanmartingo oilasko biltzeak bere horretan jarraitu arren, Etxeberriaren ustez zenbait ohitura guztiz aldatu dira: *Oraingo gazteak traktorean joan ohi dira; guk oinez egiten genuen ibilbide berbera, zeharo alfertuta ditugu!*, dio parra algaraz.

Ez zen guztia oilasko bilketara mugatzen; zenbait baserritan oilaskoaren ordeztu, dirua ematen zieten ortzaikarrei: *Festarako primerakoa, jan eta edana behar bezala egiteko!*

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.

kARKARAK bi otar zozketatzen ditu bere laguntzaileen artean

KUTXA BELTZA [50€]

OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA · OZPIN EKOLOGIKOA
 MAHATS-ZUKU EKOLOGIKOA · ORBURU BIHOTZAK
 PIPER TXORIZERO MAMIA · POTXAK · ARDO BELTZ
 EKOLOGIKOA · ZAINZURI ZURIAK · ARBENDOLAK
 BORRAJA EKOLOGIKOA · PIKILLO PIPER OSOAK
 MELOKOTOIA ALMIBARRETAN · TOMATE FRIJITUA



PIKILLO SALTSA · PASTA EKOLOGIKOA · TEILAK
 PIKILLO PIPER OSOAK · ARDO BELTZ EKOLOGIKOA
 ZAINZURI ZURIAK · ORBURU BIHOTZAK · ARROZA
 ZAINZURI-KREMA · PIPERRADA · OZPIN EKOLOGIKOA
 ARDO ETA KANELA PASTAK · TXOKOLATEZKO COOKIEAK

KUTXA ZURIA [50€]

ERRI GORA

K

GARAIZ ZAUDE zozketan parte hartzeko,
 egin zaitez **kARKARAKo LAGUNTZAILE**

Tel: 943 831 527 · 688 857 305

Orio AE: estropalari berriak eta eta taldea laga dutenak

Orio Arraun Elkarteak bidalitako informazioaren arabera, aldaketa hauek izango dira senior mailako taldeetan.

MUTILAK

| UTZI DUTENAK | BERRIAK |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Jon Agirrezabala (Donostiarra) • Jon Albizu (Arrauna utzi) • Mikel Azkarate (Santurtzi) • Iñaki Elorza (Arrauna utzi) • Unai Etxeberria (Arrauna utzi) • Iñigo Mujika (Arrauna utzi) • Josu Indo (Arrauna utzi) • Iban Martinez (Urdaibai) | <ul style="list-style-type: none"> • Kepa Arrizabalaga (Donostiarra) • Andoni Campos (Getaria) • Jon Etxaniz (lehenengo urtean ez zuen arraunean egin, aurretik Zumaian) • Ibai Gonzalez (San Pedro) • Asier Guillén (Donostiarra "B") • Leandro Salvagno (Zierbena) • Fernando Valenciaga (San Pedro, aurrez ere Orion ibilitakoa) |



NESKAK

| UTZI DUTENAK | BERRIAK |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Lukene Lizaso (Arrauna utzi) • Amaia Uranga (Arrauna utzi) • Edurne Moreno (Arrauna utzi) | <ul style="list-style-type: none"> • Leire Alcalá (lehenengo urtean ez zuen arraunean egin, aurretik Hibaikan) • Amets Aranguren (lehenengo urtean ez zuen arraunean egin, aurretik Getarian) • Amaia Arregi (lehenengo urtean ez zuen arraunean egin, Orion jubenil maila arte) • Laida Arruti (lehenengo urtean Donostiarran egin zuen arraunean, Oriok utzita) • Luda Davidenko (lehenengo urtean ez zuen arraunean egin, Orion jubenil maila arte) • Ane Erkizia (aurten hasi da arraunean) • Vicky Piñeiro (San Juan) • Sandra Piñeiro (Cabo da Cruz). |



Zarautz

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa

> Hileta zerbitzu orokorrak

> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



ORIA
hortz klinika

Arantzale kalea, 63 beheko
20810 ORIO
Tel.: 943 83 34 45

Orio Hortz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martean.

Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre-erabakizunean sor ditzakeen arazoak.



Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
688 714 869

Endaia Enparantza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco
Orioko ordezkaria

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



KARELA Erriberak 1, 20810 Orio - 943 894 428 · orio@bpport.es



Urtarrilak 2, 3 eta 4
kirol txokoak



PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL.F - 943 572 083
FAX - 943 571 190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORIO

ZUR EDER
muebles tapicería alfombras

zureders@zureder.com
943 13 49 21
Poligono Ubegetan Nº1, Puerta 8
20810, Aia-Orio

AUKERA!
50%
-ERAINOKO
DESKONTUA
KOLTXOIETAN

URAITZ
Liburindotgia
Janitzo-argazkiak

Eukria3 Tfwnr 943 83 18 97

egin zaitez laguntzaile

Karkara



ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA
fotorosanaarruti@gmail.com
tel: 943 83 58 45



HAIZE BERRI
taberna-jatebetea-kafetegia

Piñer konbinatuak,
bokalak,
harburgerak,
raziak,
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!
943 831 623
Orleko kiroldegian, Erribera 1



Ostiralean
pinko potea!!

Gaztetan
ITXILA

ITZALA

kartetan jokatzeko
azpina

tel. 943 83 12 59

Sinergia | fisioterapia & ikerkuntza

- Lesioak: bihurturak, fendingilisak, zainfirituak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaikotasunak, haur eta heduefak, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesotaping-o, pilates, abdominaleko gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD -

943 13 05 77
685 71 85 95



Hark Oribia 1, Baita - Orio
sinergiafisioterapia.com



LARDIZABAL HERRI ESKOLA



“Ezin dut musikatik, idaztetik eta pelikulak egitetik bizi oraingo”

Oier Aranzabal

Aian bizi den kulturjile oparoa

Zein musika mota jotzen duzu?

Gure musika jotzen dugu, ez nintzateke ausartuko musika klase bat jartzeko. Saiatzen gara gure gustuko musika egiten.

Nola izena du zure taldeak?

Lou Topet. Izen hau Hasier Etxeberria ETBko Sautrela saioko aurkezleak eman zigun. Topet Barkoxeko Etxahun Topet koblakariaren abizenetik hartu zuen eta horri izen anglosaxoi bat erantsi zion jendea despistatze aldera.

Zenbat zarete taldean?

Aldakorra da, ez da ohiko talde bat. Proiektu bat bezala ikusten dugu eta oinarrizko banda laukote bat da. Baina gero jende ezberdina batu izan da proiektu desberdinetan, eta aldatuz joan da.

Zuk zein instrumentu jotzen duzu?

Gitarra akustikoa jotzen dut eta horrekin moldatzen naiz abestiak konposatzeko, eta taldeko kideekin batera kolore desberdinak ematen dizkiogu ondoren.

Zenbat disko atera dituzue?

Hiru disko propio atera ditugu eta parte hartu genuen Imanol Urbie-

taren omenez egin zen abesti bilduman, *txoria nintzela* abestiaren bertsiorekin. Bilduma honetan Fermin Muguruzak, Anarik, Joseba Irazokik... eta beste hainbat musikaririk ere hartu zuten parte.

Zein beste instrumentu jotzen duzu?

Taldean, gitarra akustikoa aparte, aho-soinua eta ahotsa ere jartzen dut. Horrez gain, baxua eta eskusoinua ere jo izan ditut.

Zinemagintzan ere aritu zara?

Lehenengo aldiz pelikula bat egin dut eta asko ikasi dut azken bi urte hauetan. Zortea izan dugu Zinemaldian hartu dutela eta bertan aurkezteko aukera izango dugula.

Nola bururatu zitzaizun pelikula egitea?

Erraza ez da izan. Bere zailean erraza izan da Mikel Urdangarinek ate guztiak ireki dizkigulako pelikula egiteko. Mikel musikari profesionalen igarotako 20 urteak ardatz hartu eta artistaren barruko arimari argazki bat ateratzeko saiakera egin dugu pelikulan.

Zein titulu du filmak?

Margolaria.



Ugaitz eta Dona

Azaroaren 25a

Azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeriaren eguna da eta horri buruz gure iritzia azalduko dizuegu ondorengo testuan.

Egunero, emakumeek hainbat eraso jasaten dituzte eta horregatik ospatzen da egun hori. Guk nahiko genukeena da egun hori ez ospatzea horrek esan nahiko lukeelako ez dagoela indarkeria matxistarik ezta matxismorik ere gure gizartean. Azkenaldian, matxismoa jaisten ari da baina oraindik ere indarkeria asko dago gure inguruan. Gure gizarteak ez du aurreratzen kontu horietan.

Egin dezakeguna zera da: lagunak errespetatu, indarkeria matxista jasaten duten emakumeei lagundu eta babestu, lagun, ezagun edo ezezagun izan.

Matxismoa ez da bakarrik erasotzea eta bortxatzea, gauza gehiago ere bada. Adibidez: meen kiroletan sexu banaketa eta panpinen iragarkietan neskak bakarrik ateratzea.

Ea arazo hau denon artean konpontzen dugun.

Egin dezakeguna da: lagunak errespetatu eta indarkeria matxista jasaten duten emakumeei lagundu

Noizko gazteen aisialdirako lokalen diagnosia?



Neska talde bat, beren lokalean solasean. ETAKITTO

Gazteek beren aisialdia antolatu eta gozatu nahi izaten dute, eta beste alternatiba egokiagorik ezean, asko dira lokalak edo etxabeak hartzen dituztenak.

Lokal horiek ugaritu izanarekin batera, hainbat arazo sortu dira herri batzuetan, batez ere lokalen erabiltzaileen eta bizilagunen artean, ohiko elkarbizitza astindu edo aztoratu dutenak. Horregatik, batzuetan arazoak konpondu nahian, beste batzuetan aurrea hartu nahian, gero eta herri gehiagotan gauzatzen ari dira gazte-lokalak eta elkarbizitza lantzeko prozesuak, gaiak hitz egiteko, adostasunak bilatzeko eta kasu batzuetan, baita arautzeko ere.

Gazte lokalen ordenantza

Orioko gazte lokalen bueltan, Uda-

lak erabakitako neurria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko uztailearen 19an. Hala zioen idatzi ofizialak: *Behin behineko onarpena ematea Orioko gazteen aisialdirako lokalei buruzko udal ordenantzari.*

Udalaren txokoa atalerako gaia Orain Herriko Plataforma Independienteak proposatu du. GAO-ean plazaratutakoa aintzat hartuta, alderdi horrek berretsi du *jada urte bete baino gehiago igaro dela eta oraindik ez dutela Udal Gobernutik inolako informaziorik jaso.*

2012tik, gaur arte

Orioko aisialdirako lokalak arautzeko Udal Ordenantzaren lanak 2012an hasi ziren, eta 2013ko urriaren 31n egindako udalbatzarrean onartu zen.

Ordenantzan zenbait akats zeudela ikusita, 2013ko abenduan erreklamazioa sartu zen udaletxean.

Orain taldekoek Ogasuna Pertsonala eta Kalitatea Batzordean aurkeztutako idatziak honela dio:

Ordenantza, 2017ko uztailearen 19an argitaratua izan zen. Argitaratu eta 15 egun igaro ondoren sartu zen indarrean. Xedapen gehigarrietan jartzen duen bezala, Udalak herriko lokalen erregistroa izango du eta dagokien segimendua egingo zaie.

Joxe Angel Iparragirre batzordekideak sinatutako idatzian, ondorengo eskaera egin zitzaion Udal Gobernuari: *urtebeteko epea abuztuan beteenez, 2018ko urrirako gazte lokalen erregistroaren berri eta egin zaien segimendua duen txostena jasotzea.*

**EAJ/PNV****Egin den diagnosis**

Gazteen lokalen inguruko ordenantza berria da, baina nahikoa denbora pasa da honek izan duen garapena edo ondorioaren inguruan hausnartzeko. Onartu beharko dugu araudi hau oso zorrotza dela eta honek, lokalen jabeak, aisialdira bideratutako erabilerara ez bideratzea eraman duela. Diagnosis egiterakoan ikusi dugu, gaur egun, gazteek beren aisialdi momentuak pasatzeko erabiltzen duten lokal bakarria dagoela Orion. Horretaz gain, lokal hauen inguruan bizilagunen kexak edo denuntziak izan ote diren ere aztertu dugu eta horrelakorik ez dela izan ikusi dugu. Gazteen ohiturak eta haiek beren aisialdia antolatzeke moduak asko eta azkar aldatzen dira, eta ordenantza baten beharra ikusi zenetik hona, gauzak asko aldatu dira. Udaletik aisialdia erantzukizunez eta modu seguruan garatzeko bideak eta aukerak eskaini behar ditugu. Ordenantza segurtasunera eta bizilagunekin elkarbizitza errespetuz egiteko tresna moduan sortu zen, honek zuen helburua bete duen edo ez hausnartzea tokatzen zaigu udal ordezkari.

**ORAIN****Bizigarritasuna, higiena, erosotasuna**

2013ko urriaren 31n onartu zen Orioko gazteen aisialdirako lokalen Udal Ordenantza. Denbora gutxira, 2014ko apirilaren 25ean, Arartekoak idatzia eta hamaika orrietako dokumentua bidali zien udaletxeei. Bertan, gazteen lokal egokiak eta gizarteratuak izateaz gain segurtasuna eta osasungarritasuna bermatzeko ardura gogorarazten die. Orioko Ordenantza, azkenean, 2017ko uztailearen 19an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Urtebetera Udaletxeak gazte lokalen erregistroa izan behar du eta, besteak beste, bizigarritasuna, higiena, erosotasuna eta segurtasuna bermatzen duten hainbat datu eta ezaugarri eduki behar dira. Hori horrela, Orain talde politikoak alkateari zuzendutako idatzi baten datu horiek jasotzen diren txostena eskatu du, Udaletxeko 2018ko abuztuaren 30eko sarrera zigilua duena. Oraindik ez du erantzunik jaso..

**EH BILDU****Bidean galduta**

Behar bada ez da Udal agendaren lehen lerroko gaia, baina bere garaian Gazteen aisialdirako lokalen egoera erregularizatzea beharrezkoa ikusi zen. Ordenantzak indarrean jartzea zen lehen pausoa eta lokalen egoeraren diagnosis egitea ondorengoa. Bigarrena ez bada egiten, ezertako ez du balio aurretik egindako lan guztiak. Udalean Gobernu ardura duen alderdiaren seriotasun maila erakusten du horrela. Gaiak lantzen hasten gara eta denborak aurrera joan ahala bidean galtzen dira, legealdi honetan gertatzen zaigun ohiko egoera da hau. HAPOn errebisio lanak, frontoi eremuaren garapen prozesua, udal lokalen erabileraren araudia,... dira beste adibide batzuk.

**PSE/EE**

Beste behin ere, Udal Gobernuak ez du bere lana behar bezala egin

Zenbaki honetan parte hartu ezin izan arren, gai honen inguruko goiburua eman du PSE/EEK.



Aisialdia

Txurrumuski kultur eta aisialdi elkarteak 20 urte bete ditu



1998. urtean sortu zen Txurrumuski Kultur-Aisialdi Gazte Elkartea, Orion aisialdi esparruan zegoen hutsunea betetzeko xedearekin. Sorreratik gaurdaino, herriko haur eta gazteei zuzenduriko ekimenak sortu eta sustatu izan dituzte. Ametsa gaztelekuaren eta Ludotekaren kudeaketaz ere arduratzen dira.

20.urteurrena ospatzeko, azken urtetan Hondarribian egin izan duten *Elkarbizitza txangoa* Txurrukako aterpetxean antolatu dute, garai zaharrak gogora ekartzeko. Martxoaren 22, 23 eta 24an izango dira errio ondoko aterpetxean. Ikasurtean zehar, beste hainbat ekintza ere antolatuko dituzte urteurrena ospatzeko; horien daten berri Txurrumuskik emango du.

Euskaraldia

Hainbat ekimen antolatu dituzte Aian Euskaraldiaren barruan




EGITARAUA

- Azaroak 30, ostirala: 16:30- 20:30. Poteoa euskal kantak abestuz, trikitilariak lagunduta. Kanua, Arruti eta Aize Berri tabernetan.
- Abenduak 1, larunbata: 16:00. Urola Kostako eskola arteko pilota partidak. Ordu berean, jolasak gaztetxoentzat eta gazteentzat, Gaztelekuak antolatuta. Gurasoen partaidetza ere eskatu dute antolatzaileek.
- Abenduak 2, igandea: 12:00. Barry Manleyren eskutik Txintxo ibili komedia. Irlandar batek euskararekin izan dituen komeriak azalduko ditu protagonistak.
- Abenduak 3, astelehena: Euskararen Eguna. Lardizabal Eskolak antolatuta hainbat ekitaldi.

Ingurumena

Erriberako hainbat baratze urak hartu ditu, eta alferrik galdu da aurtengo uztaren zati bat



Muntoko paseoaren azpian, erribera eta ibaia banatzen dituen atetxo bat dago, marea igotzen denean automatikoki ixten dena. Dena dela, eremu horretara izkirak harrapatzen joaten diren zenbait lagunek irekita uzten dute atea, eta ondorioz, marea igotzen denean urak hartzen ditu erriberako baratzak. Aurten ere baratzeetako uztaren zati bat hondatu egin da, eta jabeek salatu dute, urtez urte errepikatzen den arazoa dela. Horregatik, inguru horretara izkirak harrapatzen joaten jidirenei mesedez atea ixteko eskatu diete, baratze-tik bizi ez badira ere, lur eremua urak harrapatzen duenean uda osoko lana alferrik galtzen delako.



Maria Andresa eta Jose Alkain

Gaur, ostirala, azaroak 30, 50 urte bete dira Maria Andresa Lazkano eta Jose Alkain Alkain aiarrak ezkondu zirela.

Ospakizun eguna dute gaurkoa: urrezko ezteiak izan ez ezik, San Andres eguna ere ospatzen da, Maria Andresaren santua. Beren biloba batek ere 15 urte betetzen ditu.

Bihar, abenduaren lean, familia guztia elkartu eta bazkari eder batez gozatuko dugu, data garrantzitsu hau denon artean ospatzeko, dio Maria Andresak. Zorionak familia!



Angel Echeverria eta Ana Mari Oliden

Azaroaren 8an urrezko ezteiak bete zituzten Angel Echeverriak eta Ana Mari Olidenek. Ospakizun bazkaria, ordea, urrian egin zuten Katxiñan, familiarterko denak juntatzeko aukera izan zezaten. Egun ederra pasa zutela kontatu digute. Zorionak bioi!



Trini Manterola eta Alberto Agirre

Trini Manterola eta Alberto Agirre 1958ko San Alberto egunean, azaroaren 15ean, ezkondu ziren Aginagako elizan. Azaroaren 18an ospatu zituzten diamantezko ezteiak familian, behar den bezala, bazkari eder batekin. 60 urte elkarrekin alajaina, zorionak bikote!



AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

- Logela alokagai Orion Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551550.
- Logela alokatuko nuke Orion. Beste lagunen baten bila ere banabil, elkarrekin etxebizitza bat alokatzeko. Tf: 688690385.

Salgai

- Aiako babarrun beltza saltzen da, 5€ kiloa. Tf: 636312231.

Lan bila

- Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544.
- Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinekoen zaintza, garbiketa lanak Asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia duena eta erreferentziekin. Tf: 661133295
- Neska bat lan bila Esperientzia zabala adinekoen zaintzan eta garbiketa lanetan. Papearak behar bezala ditut.
- Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta

- klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tf: 636312231
- Neska lan bila Barnezaintzailea, garbiketa lanak, eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin. Tf: 632582365.
- LH-ko gradua egiten ari den neska oriotarra, LH-ko ikasleei klase partikularrak emateko prest, edozein irakasgai. EGA (euskara) eta FIRST (ingeleza) agiriak ditut. Rut Atxega. Tf: 678083496.
- Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tf: 676441327

Lan eskaintza

- Urdaira Sagardotegian aste bukaeretan sukaldetan laguntzaile bezala lan egiteko pertsona behar dugu, urtarriaren 12 eta maiatzaren 12 bitartean.

ITSASOA

| | ITSASGORA | ITSASBEHERA | ILARGIA |
|----|-----------------|-----------------|---------|
| 01 | 01:47 eta 14:18 | 07:56 eta 20:26 | ○ |
| 02 | 02:46 eta 15:12 | 08:51 eta 21:22 | ○ |
| 03 | 03:41 eta 16:03 | 09:44 eta 22:15 | ○ |
| 04 | 04:34 eta 16:54 | 10:34 eta 23:08 | ○ |
| 05 | 05:26 eta 17:44 | 11:24 eta | ○ |
| 06 | 06:17 eta 18:35 | 00:00 eta 12:14 | ○ |
| 07 | 07:08 eta 19:26 | 00:51 eta 13:03 | ○ |
| 08 | 07:59 eta 20:18 | 01:41 eta 13:54 | ○ |
| 09 | 08:50 eta 21:11 | 02:32 eta 14:45 | ○ |
| 10 | 09:43 eta 22:06 | 03:25 eta 15:38 | ○ |
| 11 | 10:39 eta 23:04 | 04:19 eta 16:35 | ○ |
| 12 | 11:41 eta | 05:17 eta 17:37 | ○ |
| 13 | 00:09 eta 12:47 | 06:19 eta 18:45 | ○ |
| 14 | 01:18 eta 13:51 | 07:25 eta 19:53 | ○ |
| 15 | 02:25 eta 14:49 | 08:27 eta 20:55 | ○ |
| 16 | 01:47 eta 14:18 | 07:56 eta 20:26 | ○ |
| 17 | 02:46 eta 15:12 | 08:51 eta 21:22 | ○ |
| 18 | 03:41 eta 16:03 | 09:44 eta 22:15 | ○ |
| 19 | 04:34 eta 16:54 | 10:34 eta 23:08 | ○ |
| 20 | 05:26 eta 17:44 | 11:24 eta | ○ |
| 21 | 06:17 eta 18:35 | 00:00 eta 12:14 | ○ |
| 22 | 07:08 eta 19:26 | 00:51 eta 13:03 | ○ |
| 23 | 07:59 eta 20:18 | 01:41 eta 13:54 | ○ |
| 24 | 08:50 eta 21:11 | 02:32 eta 14:45 | ○ |
| 25 | 09:43 eta 22:06 | 03:25 eta 15:38 | ○ |
| 26 | 10:39 eta 23:04 | 04:19 eta 16:35 | ○ |
| 27 | 11:41 eta | 05:17 eta 17:37 | ○ |
| 28 | 00:09 eta 12:47 | 06:19 eta 18:45 | ○ |
| 29 | 01:18 eta 13:51 | 07:25 eta 19:53 | ○ |
| 30 | 02:25 eta 14:49 | 08:27 eta 20:55 | ○ |
| 31 | 00:09 eta 12:47 | 06:19 eta 18:45 | ○ |

ZAINZAKO BOTIKAK

- ABENDUA:
- Ilean eta 2an, Esparza. 943 83 23 98 Zarautz
 - 3an, Gallo. 943 50 47 83 Zarautz
 - 4an, Izpizua. 943 83 29 70 Zarautz
 - 5ean, Zulaika. 943 13 31 83 Zarautz
 - 6tik 9ra, Gaminde. 943 13 29 83 Zarautz
 - 10ean, Lasa. 943 13 31 83 Zarautz
 - 11ean, Zulaika. 943 13 38 14 Zarautz
 - 12an, Lasa. 943 13 38 14 Zarautz
 - 13an, Etxeberria. 943 83 09 36 Orio
 - 14an, Lasa. 943 83 09 36 Orio
 - 15 eta 16an, Larrañaga. 943 13 29 83 Zarautz
 - 17an, Zulaika. 943 13 40 19
 - 18an, Lasa. 943 13 39 94 Zarautz
 - 19an, Etxeberria.
 - 20ean eta 11ean, Lasa.
 - 22an eta 23an, Iturria.
 - 24an eta 25ean, Gallo.
 - 26an, Esparza.
 - 27an, Lasa.
 - 28an, Iturria.
 - 29an eta 30ean, Etxeberria.
 - 31ean, Larrañaga.
- Etxeberria:** Gipuzkoa Kalea, 17, 943 83 23 98 Zarautz
- Esparza:** Santuiturri Plaza, 5-6, 943 50 47 83 Zarautz
- Iturria:** Kale Nagusia, 12, 943 83 29 70 Zarautz
- Izpizua:** Urdaneta, 8, 943 13 31 83 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16, 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza, 943 83 09 36 Orio
- Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68, 943 13 29 83 Zarautz
- Gallo:** Zigorria Kalea, 17, 943 13 40 19
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41, 943 13 39 94 Zarautz

KOMIKIA



Orio

San Nikolas festak

- Abenduaren 5etik 8ra (ikusit egitaraua erdiko orrialdeetan).

Ipuin kontalaria

- Abenduaren 10ean, astelehenean, arratsaldeko 18:00etan, Mirian Mendozak ipuin kontalaria, kultur etxeko areto nagusian. 3 eta 5 urte bitartekoentzat.
- Abenduaren 17an, astelehenean, arratsaldeko 18:00etan, Mirian Mendozak ipuin kontalaria, kultur etxeko areto nagusian. 3 eta 5 urte bitartekoentzat.

Gabonetako kontzertua

- Abenduaren 19an, asteazkenean, Gabonetako kontzertua eskainiko dute Salatxo Abesbatzak eta Danbolin Musika Eskolako ikasleek.

Bingoa

- Abenduaren 12an eta 19an, asteazkenean, bingoa kultur etxean, 16:30 eta 18:30 bitartean.

Mandalara

- Abenduaren 23an, igandean, kultur etxean, 16:30ean, Mandala tailerrak umeentzat. Ondoren, herriko zuhaitza apaintzera joango dira.

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

- Abenduaren 24ean, arratsaldeko 17:30etik aurrera, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Goizean, Orioko bi eskoletako haurrak kantari arituko dira herriko kaleetan zehar.

San Silbestre lasterketa

- Abenduaren 31ean, astelehenean, goizeko 11:00etan haurren lasterketa izango da eta, 12:00etan, helduena.

Kultur etxea

- Abenduaren 24tik urtarrilaren 4era, goizez egongo da irekita kultur etxea, 09:00etatik 13:00etara.

Aia

Euskaraldia Aian

- Azaroak 30, ostirala: 16:30 eta 20:30 bitartean, poteoa euskal kantak abestuz, trikitilariak lagunduta. Kanua, Arruti eta Aize Berri tabernetan.
- Abenduak 1, larunbata: 16:00etan, Urola Kostako eskola arteko pilota partidak. Ordu berean, jolasak gazte-txoentzat eta gazteentzat, Gaztelekuak

antolatuta. Gurasoen partaidetza ere eskatu dute antolatzaileek.

- Abenduak 2, igandea: 12:00etan, Barry Manleyren eskutik *Txintxo ibili* komedia. Irlandar batek euskararekin izan dituen komeriak azalduko ditu protagonistak.
- Abenduak 3, astelehena, Euskararen Eguna. Familia guztiari zuzendutako hainbat ekitaldi, Lardizabal eskolak antolatuta.

Erromeria Aristerrazun

- Abenduaren 2an, larunbatean, erromeria Aiako Andatza auzoko Aristerrazun, Ostolaza eta Andoni Ezkerra trikitilariekin. Arratsaldeko 18:30etik 21:30era.



FATXADAK ETA ERREFORMAK

FATXADEN TRATAMENDU DESBERDINETAN ADITUAK:

- Bentilatua
- SATEa
- ...

AIAN-ORION EGINDAKO ZENBAIT LAN:

- Gaboneko fatxada (argazkian)
- Sarasuako fatxada
- Kanpineko eraikina, barrutik eta kanpotik
- Mutiziobal ontziola eraikina, barrutik eta kanpotik (2.fasea, gauzaten)



Zuengandik hurbil!



Santio auzoa,41
20810 AIA-ORIO
Tel.: 943 578 229
Fax: 943 578 224
murgil@murgil.es